

# MIKROENPRESA, ENPRESA TXIKI ETA ENPRESA ERTAIN KONTZEPTUAK

BETEKIZUNA		MIKROENPRESA	ENPRESA TXIKIA	ENPRESA ERTAINA
a)	Jarduera	Ustiapen ekonomiko bat egitea		
b)	Kontabilitateko magnitudea	Erag. bol. $\leq 2M$ edo Aktibo osoa $\leq 2M$	Erag. bol. $\leq 10 M$ edo Aktibo osoa $\leq 10 M$	Erag. bol. $\leq 50 M$ edo Aktibo osoa $\leq 43 M$
c)	Batez besteko plantilla	< 10 langile	< 50 langile	< 250 langile
d)	Sozietate harremanak	Erakunde handiagoen partaidetza, zuzeneko edo zeharkakoa, ezin da izan % 25koa edo hortik gorakoa; salbuespen izango dira, hala ere, arrisku kapitaleko sozietateak edo funtsak, haien xede soziala betez.		

M = milioi euro

- Aurreko zergaldiko datuak.
- Lanaldi partzialarekin ari diren langileei dagokienez, kalkulua lan egindako orduen proportzionala izango da.
- Erakundea sozietateen multzo batean sartuta badago (MerkK.ko 42. art.), egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharrak edozein izanda ere, multzo horretako erakunde guztien magnitudeak hartuko dira kontuan.

# MIKROENPRESA, ENPRESA TXIKI ETA ENPRESA ERTAINAREN ZERGA ORDAINKETAN AZPIMARRATU BEHARREKO ESPEZIALITATEAK

37/2013 Foru Arauko artikulua		MIKRO	TXIKIA	ERTAINA
21	<b>AMORTIZAZIOA</b>	Amortizatzeko askatasuna du, kengarritasun mugatua duten eraikinetan eta garraio elementuetan izan ezik.		Amortizazio azkarra: 1,5 x amortizatzeko gehieneko koefizientea, kengarritasun mugatua duten eraikinetan eta garraio elementuetan izan ezik.
		<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ibilgetuaren baterako amortizazioa = zerga balio garbiaren % 25.</li> <li>▪ Kanpoan geratzen dira amortizatu ezin diren elementuak eta garraio elementuak.</li> <li>▪ Aukera hau bateraezina da amortizatzeko askatasunarekin.</li> </ul>		
18	<b>FINANTZA ERRENTAMENDUA</b>	3 x amortizatzeko gehieneko koefizientea, taularen arabera (eraikinetan izan ezik)		
22.3	<b>KAUDIMENGABEZIAK</b>	Kaudimengabeziatarako horn. orokorra = zordunen kontuetako % 1, banan-banan hornitutakoak eta kendu ezin direnak izan ezik		

37/2013 Foru Arauko artikulua		MIKRO	TXIKIA	ERTAINA
32.4	<b>TAMAINARI DATXEZKION ZAILTASUNEN ZERGA KONPENTSAZIOA</b>	ZOren kenkaria, zerga oinarri positiboaren % 15ekoa, zuzenketa hau aplikatu baino lehen.		
43.5 y 6	<b>LOTUTAKO ER. DOKUMENTAZIOA</b>	Dokumentazio betebeharrak erraztea		
51	<b>ENPRESEN KAPITALIZAZIOA BULTZATZEKO KONPENTSAZIOA</b>	51. artikuluko 1. idatz zatian ezarri den ehunekoa (% 15) bost puntu igo da. MIKROENPRESETAN mozkina bateraezina da ZOren % 15eko konpentsazioarekin.		
52	<b>MOZKINAK NIBELATZEKO ERRESERBA BEREZIA</b>	52. artikuluko 1. idatz zatian ezarri diren ehunekoak bost puntu igo dira. MIKROENPRESETAN mozkina bateraezina da ZOren % 15eko konpentsazioarekin.		
53	<b>EKINTZAILETZARAKO ETA JARDUERA PRODUKTIBOA INDARTZEKO ERRESERBA BEREZIA</b>	Bateraezina da ZOren % 15eko konpentsazioarekin		
56.1	<b>KARGA TASAK</b>	Tasa orokorra:% 20 Gutx. zerga ordainketa:% 15 / % 13	Tasa orokorra:% 20 Gutx. zerga ordainketa:% 15 / % 13	Tasa orokorra:% 24 Gutx. zerga ordainketa:% 17 / % 15